

Agentziak **egonkorretik positibora** hobetu du bere ikuspegia

## Moody'sek Baa1-ra igo du Kutxabanken rating-a

- Bere maileguen kalitatearen hobekuntza eta kaudimen egoera nabarmena aipatzen ditu txostenean
- Bankuaren sarreren dibertsifikazioa nabarmentzen du, interes-tipoak negatiboan dauden egoerari aurre egiteko gai delako

**2021ko urriaren 8an.** Nazioarteko Moody's agentziak **Baa1** mailara hobetu du Kutxabanken epe luzeko gordailuen rating-a, eta bere ikuspegia **egonkorretik positibora** hobetu du.

Rating-a hobetzeko eman dituen argudioen artean, agentziak Bankuaren **errentagarritasuna hobetu** izana aipatzen du, **sarrerak dibertsifikatu** baitira aseguru enegoziari eta kudeatutako aktiboek esker. Zehazten duenez, marjina gordinaren % 48 baino ez dator interesen marjina, Espainiako finantza sistemako batez bestekoa % 67koa denean. Alde honi oso positibo deritzo agentziak, **interes tipoak negatiboan dauden egoerari aurre egiteko gaitasuna** duelako Bankuak.

Agentziak goretzi duen beste gai bat **maileguen kalitateak izan duen hobekuntza** da, baita pandemia garaian ere. Bankuaren **kapital egoera sendoa** aintzat hartzen du, bere CET1 maila Espainiako finantza-sistemako buruan baita. Ekainaren amaieran **berankortasun ratioa** % 2,0n mantentzea ere azpimarratu du, alorraren batez bestekoa % 4,1ekoa zenean, % 76,2ko **estaldurarekin**. Rating agentziak ez du uste 2022an luzamenduak amaitzen direnean arriskuaren kalitateak narriadura nabarmena jasango duenik.

Horrez gain, Moody's-ek positibo irizten dio Kutxabanke berriki jaulki duen bere lehen **bono berdeari** (senior non preferred).

Kutxabanken jarduerak izan duen bilakaerari buruzko hausnarketa positibo hau Bankuak urtean zehar jaso dituen beste hainbat aintzatespenen ondoren iritsi da. Izan ere, The Banker aldizkariak bigarren urtez jarraian "The Best performing Bank in Spain" kokatu zuen Kutxabank, EBZren estres frogetan balizko testuinguru okerrenean ere kaudimen onena lortu zuen bankua izan zen, eta Espainiako finantza-sistemako kapital eskakizun txikiena zuen erakundea izendatu zuen Europako Banku Zentralak.